



deur izeneko herrixkan hartu gintuzten. Hara heldu eta hamabost egunera tifusak harrapatu ninduen. Hori oso gogorra izan zen, ospitalean hiru hilabete eman bainuen, frantsesa jakin barik eta familiarekin harremanik izan ezinik. Osatutakoan, Ile de Re izeneko uhartera eraman gintuzten. Itzultitakoan, aita kartzelan sartu zuten eta heriotza zigorra ezarri zioten, baina azkenean askatu zuten.

Nondik datorkizu euskara eta euskal kulturarenganako zaletasuna? Etzetik. Aitaren familia Muxikakoa zen, eta amarena Gernikakoa, biak euskaldunak. Ni txikitan ikastolara joan nintzen, eta erbestetik itzuli ginenean baino ez nintzen gaztelaniaz ikasten hasi. Sei urte nituela, irakurketa sari bat irabazi nuen Gernikako batzokian, eta saria Sebero Altubek eman zidan. Bitxia da, gerora, Altubek Euskaltzaindian izan zuen aulkia hartu bainuen nik. Beraz, euskaltzaitasuna aspalditik datorkidan kontua da. Baina nik uste dut euskal kulturarekiko interesa erreazio moduan sortu zitzaidala. Frantzia egon ginenean oso giro irekia aurkitu genuen, baina Euskal Herrira bueltatu ginenean, giroa guztiz kontrakoa zen. Apaiztegiari sartu nintzenean, trauma bat izan zen niretzat: Frantzia erabateko askatasuna izan, eta apaiztegiari, esaterako, euskara galarazita zegoen. Nik uste dut erreazio gisa hasi nintzela zaleztzen.

Gainera, giroa borborka egongo zen, ezta?

Bai. Nik Zuzenbidea ikasi nuen, eta 1954an amaitu nuen karrera. Gero, aitarekin hasi nintzen lanean, baina nire bizitzari beste norabide bat eman nahi nion, eta 1957an hasi nintzen Zientzia Ekonomikoak ikasten. Jakina, handik gutxira hasi zen ETAre kontua, ikasleen artean abertzaletasuna agerikoagoa zen, euskal kantuak eta horrelakoak berreskuratzen hasi ginen eta abar. Mugimendua hasi zen. Gainera, nik beste abantaila bat izan nuen: Formica etxean hasi nintzen lanean, iparraldeko ordezkari komertzial izendatu ninduten, eta horrek aukera eman zidan Euskal Herrian zehar ibili eta herri guztiak ezagutzeko.

Eta lanari ekin zenion.

JOC gazte langile katolikoaren erakundearen sartu nintzen, eta haiek *Brisas guerniquesas* izeneko aldizkaria ateratzen zuten. Horren zuzendaritza hartu nuenean, hasi nintzen euskarazko gauza batzuk sartzen, eta parrokoak deitu zidan esateko kexak jaso zituela hori zela eta. Nik, erantzun gisa, gutun bat idatzi nion, eta esan nion nire ustez are gauza gehiago sartu beharko zirela euskaraz. Beste aldetik, Sebero Altube ikastola sortu nuen 1963an, hamahiru umerekin. Baina, umeez gain, gazteekin ere zerbait egin behar zela pentsatzen nuen, eta euskal kultura, historia eta horrelako gaien

inguruko ikastaroak antolatzen hasi ginen.

Musikazalea ere bazinen

Bai. Bogamazua zortzikotea sortu genuen, eta 1963an lau disko grabatu genituen Bartzelonan, euskal kantuekin. Gogoratzen dut ekainaren 21ean Paulo VI.a aita santu izendatu zutela, eta Bartzelonako kanpai guztiak hasi zirela batera jotzen. Grabazioa gelditu behar izan genuen, zarata horrekin ez zegoelako ezer egiterik. Geroago, 1978an, Andra Mari korala sortu nuen, eta hamar urtez zuzendu nuen, baina 1988an utzi nuen, euskaltzain oso izendatu baininduten eta denetarako astirik ez neukan.

Ez zen erraza izango Francoren garaian euskal kulturaren alde lan egitea. Arazoak izan zenituen, eta kartzelatua ere izan zinen. Nola izan zen hori?

1963an, Astra arma lantegian sartu nintzen, idazkari nagusi moduan. Eta nik susmoa dut hango nagusi Augusto Unzetak esan zioela poliziari neuk armak eta munitzioa ematen nizkiola ETari. Horrek ez zeukan ez hankarik ez bururik, eta fakturak ikustea besterik ez zegoen horretaz jabetzeko, baina Polizia etxera etorri zen, eta Bilboko poliziaz etxera eraman ninduten. Hiru egun eman nien han, egurra hartzen, eta gero kartzelara eraman ninduten. Han nengoela, Unzeta agertu zitzaidan, notario batekin, lanetik bota ninduela esatera.

Nolatan hasi zinen harremanetan Euskaltzaindiarekin?

Nik banuen musikarekiko zaletasuna, eta, Deustuan ikasten ari nintzela, artxiboetan hasi nintzen arakatzen, gure zortzikoterako euskal kantu zahar bila. Euskaltzaindiaren egoitzara ere joan nintzen, eta han Resurreccion Maria Azkuerekin topo egin nuen. Haren lan batzuk erosi nituen. Geroago, lanik gabe gelditu nintzenean, berriro joan nintzen Euskaltzaindiara kantu bila, eta ikusi nuen hango agiritegia desastre hutsa zela. Sekulako altxorra zegoen, baina sailkatu barik. Jose Luis Lizundiari baimena eskatu nion musikarekin zerikusia zuten agiri eta partiturak sailkatzeko, eta hark baietz esan zidan. Nik uste dut Aita Villasante orduan konturatu zela zein lan egiten ari nintzen, eta Endrike Knorrek proposatu zion Villasanteari ni bibliotekari izendatzeko. Hori 1978an izan zen, eta horretan aritu nintzen hogeitun urtean, erretiroa hartu arte. 1988an euskaltzain oso izendatu ninduten, eta diruzain ere bai.

Orain euskaltzain emeritu zara.

Bai, eta lanean jarraitzen dut. Ahal dudan guztietan bileretara joaten naiz. Bolada batean, osasun arazoak zirela medio, ez nintzen askorik joaten, baina orain berriro joaten naiz.

Duela gutxi, zure biblioteka Euskaltzaindiari eman diozu. Pena sentitzen du batek horrelakoak egitean? Egia esateko, bai. Kontua da lehen-



Jose Antonio Agirre:

1958an ezagutu nuen, meztatik irteten ari zela, Donibane Lohizunen. Triste eta indarririk gabe sumatu nuen. Monzon, berriz, hurrengo egunean ikusi genuen, eta esan zigun: «Zuen moduko hogeitun gazte edukiko banitu, bihar bertan askatuko nuke Euskadi». Hura oso baikorra zen.

R.M. Azkue: Euskal kulturaren gizonik handiena, euskararen defendatzaile eta sustatzaile handiena.

Koldo Mitxelena: Ezereztik hasita, gailurrera heldu zen gizona, eta euskararen azterketa modernoa egin duen filologorik handiena.

Manuel Lekuona: Gizona, abade zintzoa, jakintsua. Gaurko ikuspegitik urrundu zen, baina euskaldun zintzo eta peto-petoa izan zen.

Miren Azkarate: Maite dut asko dakielako eta ekarpen handiak egiten dituelako. Emakume azkarra, jakintsua eta gauzak ondo esaten dakiena.

Andres Urrutia: Euskaltzain izateko neuk proposatu nuen. Euskaltzaindia, unibertsitatea, notaritza... Ez dakit nola egiten duen gauza guztietara heltzeko, eta guztietan ondo. Miresten dut.



Kontua ez da euskaltzain asko edo gutxi egotea, daudenek lan egitea baizik»

«Erreakzio gisa piztu zitzaidan euskal kulturarekiko zaletasuna»

«Gernikako arbolaren inguruan tontakeria eta gezur asko idatzi dira»

go etxetik hona aldatu behar izan genuela, hirugarren pisuan bizi ginelako, eta nik arazoak nituen makuluekin ibiltzeko. Orduan, etxe txikiago batera aldatu ginen, eta, jakina, hemen liburu guztiak sartzeko tokirik ez. Gabon egunean bost seme-alabak bildu nituen, eta proposatu nien bibliotekarekin bost zati egitea, eta bakoitzak gustukoekin zuten liburuak hartzea. Seme-alabek esan zidaten hori inondik inora ez egiteko, liburutegia osorik joan behar zuela. Eta nik haien nahia bete dut.

Euskaltzaindiarekin zerbait bitxia gertatzen da, mundu guztia kexu ibiltzen da hartzen dituen edo hartzen ez dituen erabakien inguruan, erakundearen ustezko moteltasunaz eta abarrez...

Bai, geu ere kexu ibiltzen gara askotan.

Eta, aldi berean, gutxi izango dira Euskal Herrian hain adostasun handia lortzen duten erakundeak. Zergatik ote?

Euskaltzaindia da hizkuntzaren arautzerako dagoen erakunde ofizial bakarra. Horrek halako indar bat ematen dio. Dena den, kontuan hartu behar da Euskaltzaindiaren arauak ez direla legeak, gomendioak baizik. Eta beti, batasunari begira. Nik uste dut euskaldunok batasunaren kontzientzia dugula, hizkuntzan ez ezik, politikan ere bai. Euskaldunok barruraino sartua daramagu batasunaren beharra, politikan zein kulturaren. Eta kultur munduan batasuna lortu ezean, ez dago Euskal Herria sortzerik. Bestalde, egia da Euskaltzaindian gauzak motel doazela, euskaltzainak Euskal Herri osokoa direlako eta zaila delako bilerak egitea. Hilero barik, bilerak astero egingo bagenitu, gehiago aurreratu genuke. Eta horretarako, jakina, diru gehiago beharko litzateke.

Alde horretatik, zelan ikusten dituzu azken bolada honetan Euskaltzaindian hartu diren erabakiak, akademiaren funtzionamendua gartzetze eta bizkortze aldera?

Ez dakit. Hogeita lau euskaltzain, asko ala gutxi dira? Kontua ez da hori, hogeita lau horiek lan egitea baizik. Emerituen auzian, esaterako, ni kontra agertu nintzen. Ongi ikusten dut adin batera helduta arduratu eta jende gazteagoari bide ematea, baina aukeratzeko sistemak ez nau gogobetetzen. Euskaltzain berriak banan-banan aukeratzeko direnean, aukera dago onena hautatzeko, baina hiru batera aukeratu behar badira... Ez dakit, zalantzak ditut.

Proiektu ugari omen duzu esku artean...

Hiru egitasmo burutu nahi ditut: euskal katiximen katalogoa, Gernikako arbolari buruzko liburu bat, gai horren inguruan tontakeria, gezur eta ganorarik gabeko asmakizun asko esan eta idatzi direlako, eta, azkenik, Gernikako bombardatzeari buruzko liburu bat. Ea indar nahikoa daukadan denak amaitzeko.

tu baino lehen Jaurlaritzaren dirua eta ondareak Arroxelara (Frantzia) eraman zituen. Garai hartan aita Arroxelan zegoen, eta gure itsasontzia ere Arroxelatik gertu gelditu zen. Han geundela, hara non agertu zen txalupa txiki bat, motorra zeukana, eta hangoek galdetu zuten: «Gernikako inor ba al dago hor?»». Gure amak esan zuen baietz, bera Gernikakoa zela, eta lau seme-alabekin zihoala, horietako bat Laredon eman genuen denboran jaiotakoa. Eta txalupa horretan gure aita agertu zen! Hura poza! Azkenean, bera han gelditu zen eta guk aurrera jarraitu genuen.

Zenbat denbora eman zenuten erbestean?

Orotara, hiru urte. Lehenbizi Naredoko portu militarerra, Saint-Nazairera, joan ginen, eta han hiru egun eman genituen, Frantziara sartu ahal izateko osasun azterketak eta egiten. Gero, Villeman-